



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

HIZKUNTZA ETA KULTURA PLAN INTEGRAL BATERANTZ

**Ezagutzaren garapena komunitate eleaniztun eta
kulturaniztun batean**

Lan-saioan bildutako edukiak

2022ko urriaren 22a, Sario eraikuntza - NUP (Iruñea).



elhuyar
ezagutuz aldatzea

Dinamikaren koordinazioa eta edukiaren ustiaketa



AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA KOKAPENA	2
2. EGITARUA	3
3. ONDORIO NAGUSIAK	3
3.1 Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa	3
3.1.1 Euskararen eta euskal kulturaren transmisiorako erronkak eta proposamenak.....	4



I. SARRERA ETA KOKAPENA

Foro hau Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmen markoan kokatzen da. Nafarroako Foru Diputazioa izan zen 1918an Eusko Ikaskuntza sortu zuen erakundeetako bat Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera. Egun, garai hartan hartutako erantzukizuna sustatzeko lankidetzaren eremuak abian jartzea bilatzen du aipatutako hitzarmen markoak.

Kohesioa eta bizikidetzaren helburu, euskal gizartearen eta kulturaren adierazpide guztien iraupenak eta finkapenak duten garrantziaz jabeturik, gogoeta, ikasketa, ikerkuntza eta prestakuntza sustatzeko elkarlan eremua dugu hau.

Jendarteak, aldaketa handiei ez ezik, etengabeko aldaketen abiadura bizkorrari ere egin behar die aurre. Ziurgabetasun egoeran bizi gara. Errealitate honek eta erronka globalek eskatzen dituzten galderak eta erantzunak topatzeko premia dugu, egungo errealitatea hobetuko duten tresna eraldatzaileak sortzea beharrezkoa dugu.

Testuinguru honetan, beste kulturekin solasean, euskara eta euskal kultura modu iraunkorrean bizitzeko moduz pentsatu beharra dago. Gure baitako errealitate anitzak ulertzeko premia dugu, gure baitako aniztasuna kudeatzeko behar ditugun tresnak lantzeko beharra dago kohesioa eta herri iraunkortasuna helburu.

Ezagutzaren garapena inklusiboagoa eta bidezkoagoa izan dadin, aldaketa sakonak behar genituzke; horretarako partekatu eta sustatu nahi ditugun balore eta praktika kolektiboak definitu beharko ditugu.

Eta beharrezkoak diren aldaketen “nolakotasunari” erantzun egokia eta bidezkoa eman ahal izateko garrantzitsua izango da tokitik hausnartzea eta tokiko politiken markoa aztertzea dagoeneko komunitatea kohesio bidean jartzeko ahalegina egiten duten praktikak eta esperientziekin alderatuz.

Testuinguru honetan ospatu da Hizkuntza eta kultura politika plan integral baterantz foroa.

Nafarroako eremu ezberdinetako pertsona eta kolektibo gako eta anitzak deituak izan dira, euren arteko konfiantza testuingurua batean plan integral baten eraikuntza partekaturako.

Foroaren helburu nagusia, hortaz, hizkuntza eta kultura plan integral bateranzko marko partekatua eraikitzeke zorua sortzea izan da. Honenbestez, euskararen eta euskal kulturaren transmisiorako erronkak eta proposamenak landu ditugu.



2. EGITARAUA

Jarraian, Hizkuntza eta kultura politika integral baterantz foroaren egitaraua.

9:00 Harrera eta inskripzioa 9:30 Irekiera instituzionala

Mikel Aranburu (Eusko Ikaskuntza) eta Mikel Arregi (Euskarabidea) 9:45 Saioaren
aurkezpena: helburuak eta metodologia.

Beatriz Akizu (Eusko Ikaskuntza) eta Miren Epalza (Oteiza Fundazioa)

10:00 Hizkuntza eta Kultura Politikak: non egiten dute bat? non elkar oztopatzen dira? hitzaldia.

Iratxe Retolaza (Emagin eta UEU)

10:30 Eleaniztasuna eta kulturartekotasuna, euskara eta euskal kulturaren transmisioa. Nola integratu plan batean? esperientziak eta praktikak.

Mahai ingurua: Larraitx Muñoa eta Josune Pascual (Dindaia) / Ion Celestino (musikaria); Amets Aranguren (musikaria eta euskara irakaslea). Moderatzailea: Nora Salbotx (Amaiurko eskola)

11:30 Atsedena

12:00 Dinamika parte hartzailea I

Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa. Erronkak eta proposamenak

Binakako eta taldekako gogoeta eta landutakoa partekatzea. Eta proposamen zaparrada.

13:30 Itxiera eta hurrengo pausuak Beatriz Akizuren eskertzea

3. ONDORIO NAGUSIAK

Hizkuntza eta Kultura plan integral baterantz foroan, dinamika parte hartzailearen baitan, jasotako banakako zein taldekako ekarpenetatik hurrengo ondorioak atera dira:

3.1 Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa

Nafarroan, Euskararen eta euskal kulturaren transmisiorako zein erronka ditugun hausnartu dugu, beti ere, kontuan hartuta komunitate eleaniztun eta kulturantzun batean bizi garela; eragite eremuak anitzak direla, eta tartean hezkuntza-sistemaren (formala eta ez-formala) erronkak eta egin beharrak hausnartzen dihardugula.

Honela, euskararen eta euskal kulturaren transmisiorako hurrengo erronkak eta proposamenak mahaigaineratu dira:

3.1.1 Euskararen eta euskal kulturaren transmisiorako erronkak eta proposamenak

Euskararen eta euskal kulturaren transmisiorako erronkak lantzen hasi aurretik, hainbat galdera bota dira, hala nola:

— Zer da euskal kultura? Nola ulertzen dugu?

Euskal kultura zer den definitzea konplexua dela adierazi da eta ulerkera desberdinak izan ditzakeela, horregatik beharrezko ikusi da galdera hauei erantzuna eman eta gogoeta bat egitea, euskal kulturaren definizio konpartitu eta adostua lantzearekin batera.

— Eta zer transmititu nahi dugu? Zertarako?

Transmisioa nork egiten duen, nola egiten den... baldintzatzaile izan daitekeela aipatu da, baita tra(d)izioa nola ulertzen dugun ere. Horregatik, tradizioa era positiboan ulertu behar dela gaineratu da, etengabeko eraldaketa gisa.

Hortaz, heldu beharreko lehen erronka euskararen, euskal kulturaren eta transmisioaren inguruko irakurketa bateratu bat egitea litzateke, esparru eta balio komun batzuetatik abiatuta.

Eta abiapuntu gisa, partaideek kontuan hartu beharreko hainbat ekarpen egin dituzte:

— Euskarari dagokionez, hainbaten iritzi ez da hizkuntzarekiko atxikimendua lantzen jakin. Prestigioa eta ikusgarritasuna eman behar zaio, eta erreferenteak sortu behar dira.

— Euskararekiko erantzunkidetasuna landu behar da. Euskararen egoeraz jabeaz behar da, izan ere, eta partaideen iritzi, bai Nafarroako Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioa, baita gaur egungo elebitasun-eredu eta politika ere galgarriak baitira euskararentzat.

— Hizkuntza gutxitua izateak beste balio batzuk ere ekar ditzakeela gehitu da, errazagoa izan baitaiteke bazterretatik kontzientzia hartzea. Txikitasunak esplorazioari eman ahal baitio bide.

— Euskal kultura erresistentziatik bizi izan dela eta autodefentsarako baliatu izan dela esan da. Baita sorkuntza tresna politikoa den heinean, borroka edo gatazka konpartituetatik beste komunitateetara hurbiltzeko baliagarri izan daitekeela ere.

— Eta nola hautsi baztertzailen iruditegia, hain zuzen, integratzaile izateko lanean ari garenean?

— Halaber, dantzak, musikak... hurbilpen tresna indartsuak direla uste da, kanpo erresistentziak apurtzeko gaitasuna baitute. Akaso, kasu hauetan hizkuntza bigarren plano batean gera daiteke baina.

— Hortaz, eremu guztietan euskara zeharkakotasunez landu behar dela nabarmendu da.



Horrela, eta transmisioak derrigorrez eraldaketa ekarri beharko lukeen heinean, partaideek argi adierazi dute euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ezaugarritu eta indartu behar dela.

Bizipena definitu da transmisiorako ezinbesteko elementu. Kontaktua, emozioak, sentipenak, zerbaiten partaide izatea, kolektibitatea... sustatu behar dela; izan ere, euskararekin eta euskal kulturarekin zuzeneko harremana izateak berrmatuko baitu eraldaketa.

Eta bizipen horretan, gako garrantzitsu gisa ikusi da belaunaldiartekotasuna. Belaunaldi desberdinen arteko harremanak, elkar ezagutzak eta elkarlanak euskararekiko eta euskal kulturarekiko hurbilpena ekarriko baitu, jatorriari eta historiari balio ematearekin batera.

Era berean, euskara eta euskal kulturaren erakargarritasuna landu beharra aipatu da. Eremu guztietan euskara eta euskal kulturaren sustapena balio positiboekin lotzea nabarmendu delarik, jarrera defendatzailetik sortzailera salto egitea sustatuz. Eta honek hizkuntzari eta kulturari balio emateaz harago, erreferente berriak sortzea ekarriko duela gehituaz.

Halaber, bizipenari, eta euskararen eta euskal kulturaren transmisiori bide emateko estrategia egokituak garatu eta baliabideak sortu beharra azpimarratu da, tartean:

- Tokian tokiko hizkuntza eta kultura beharrak aseko dituzten dinamika kolektiboak sustatzea.
- Sormen espazioak eta esperimentaziorako tailerrak egitea.
- Belaunaldi desberdinak batuko dituen kultur-eskolak sortzea.
- Bertso-eskola kontzeptua disziplina desberdinetara hedatzea.
- Plaza digital euskaldun bateratua lantzea.
- Hizkuntz zein kultur arloko erabakimen esparruetan euskararen eta euskal kulturaren transmisioa berrmatuko duten erakundeak barneratzea.
- Euskararen eta euskal kulturaren transmisiorako izaera desberdineko erakundeen arteko lankidetzak esparruak irekitzea.
- ...

Testuinguru honetan, hezkuntza-sistemak euskararen eta euskal kulturaren transmisioan zer esan handia duela azalatu da, bai euskararen ezagutza eta erabileraren sustapenean, baita euskal kulturaren sorkuntzan eta zabalkundearen ere.

Hezkuntza-sistemaren baitan eskolen eragin-eremua eta irismena mugatua izan daitekeen arren, irakasleak erreferente izatea balioan jarri da, euskara eta euskal kulturaren garrantzia herri curriculumean txertatzearen behararekin batera.

Ildo beretik, hezkuntza-komunitatea indartu eta saretu beharraz hitz egin da, oro har; eskolak, familiak eta tokian tokiko eragile desberdinen arteko loturak sendotu eta hauen eragite eta transmisio gaitasuna handitzea helburu.



Komunitatea eta lankidetzaz hitz egitearekin batera, euskara eta euskal kultura bateratzaile izan beharraz hitz egin da, kulturantzatasinari toki eginez.

Azken finean, partaideak jatorri eta kultura desberdinetako haur, gazte zein helduen arteko zubiak eraiki beharraz mintzatu dira, enpatiatik bakoitzaren hizkuntza eta kultura balioan jarriz eta euskara eta euskal kulturari tartea emanez. Hala ere, euskara hizkuntza gutxitua den heinean arretaz jardutea aipatu da, hainbaten iritziz oreka bilatu behar baita “gurea” mantentzen, arnas-guneak izaten... baina geure baitan itxi gabe.